

HITZA

Bermeo

Askatasunerako argien
bidea irudikatuko du Gure
Eskuk Gaztelugatxen //3

«Lau urteotan buru-belarri lan egin dugu ingurumen arloan»

RAKEL ELU BENGOTXEA

LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOAREN LEHENDAKARIA

Mankomunitatea herritarrengana gerturatzeko helburuagaz hartu zuen Eluk lehendakari kargua, eta lortu dutela uste du; herritarrek duintasunez bizitza aurrera ateratzeko neurriak hartu dituzte //5





29 bikote ariko dira I. Master Goxuan

Markina-Xemeingo Esku Pilota Taldeak pilotari ohiak bilduko dituen txapelketa antolatu du, pilota sustatzeko
● Azaroaren 8an hasiko da martxan, frontoi txikian //6

Burgosko Auzia, mende erdi beranduago

50 urte igaro dira Andoni Arrizabalaga, Andoni Bedialauneta, Jesus Mari Aramaio, Iñaki Garcia eta Jose Ignacio Uribe ondarrutarrak epaitu zituztenetik //7



Gernika-Lumo Argazki bilduma, Morandi artista italiarra omentzeko //2

Pentsiodunen mozioa onartu du udalak, EH Bilduren botoekin

—N.B.A. Ondarroa

Ondarroako pentsiodunek mozioa aurkeztu zuten herenegun, osoko bilkuran. Pentsiodunen elkarteko ordezkariak mozioa aho batez onartzea eskatu zuten, «astelehenero Alamedan batzen diren 275 pentsiodunengatik, eta balio sinboliko handia eduki-ko lukeelako». EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz onartu da mozioa.

Beraien eskaerak babesteko eskatu zioten udalbatzari, bai aholkularitzan eta baita mobilizazioetan ere. Zunbeltz Bedialauneta alkateak babes osoa erakutsi dio kolektiboari, eta orain arte egin modura, astelehenero egiten duten elkarretaratzeagaz bat egiten jarraituko duela adierazi du. Maria Dolores Etxano jeltzaleen ordezkariak, aldiz, mozioagaz «erdizka» datozela bat esan du, eta hortik etorri dela abstentzioa. «Argi dago Toledoko ituna berrikusi behar dela, eta gu horren alde gaude». Pentsioniodunei gizarte eta aholkularitza alorretan udal zerbitzuak eskaintzea eskatu dio udal gobernuari.

Heriotzari buruz haurrekin zelan hitz egin behar den azalduko dute hitzaldian

—N.B.A. Mutriku

Gaba Beltza ailegatzear da Mutrikura, eta arimen gaua heldu bitartean, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte. Gaur 17:30ean Zabielen, esate baterako, *Heriotzaz haurrekin hitz egiten* hiltzaldi musikatu eskainiko du Nerea Mendizabal psiko-pedagogoko eta hezitzaileak.

Antolatzaileek iragarri dutenez, hitzaldia, batez ere, hezitzaileei eta gurasoei zuzenduta dago. Martitzenean, aldiz, Josu Ozaita antropologoak *Itzalitako kalabazen berpiztea*. Arimen gaua, *Halloween eta Gau Beltzaren haur ospakizunak* hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Zabielen.

Burgosko auzi ezagunaren aurrekaria izango zenean epaitu zituzten Andoni Bedialauneta, Jesus Mari Aramaio eta Iñaki Garcia. Auzi berean epaitu zuten Andoni Arrizabalaga ere.

Memorian gordetako epaiketa

—NEREA BEDIALAUNETA

ALKORTA Ondarroa

Mende erdi igaro da Burgosko Auzitegi Militarrek bost gazte ondarrutar epaitu zituela. Hain zuzen ere, 1969ko urriaren 27an epaitu zuten 28-69 deritzon sumarioaren barruan Andoni Arrizabalaga Basterretxea *Itziarren semea* (Ondarroa, 1941-Couloir, Mont Blanc, Frantzia, 1984). Harekin batera auzipetuen aulkian eserita egon ziren Andoni Bedialauneta Laka, Iñaki Garcia Aranbarri, Jesus Mari Aramaio Etxaburu eta Jose Ignacio Uribe Burgoa ere. Urteurren bereziaren harira, HITZAK Bedialauneta, Garcia eta Aramaioekin batzeko aukera eduki du. Bost hamarkada igaro badira ere, egun hartako oroitzapenak bizi-bizi dituzte.

Ondarrutarren aurkako epaiketa militarra, hain zuzen, Burgosko auzi ezagunaren aurrekaria izan zen. Burgosko prozesua baino 14 hilabete lehenago heriotzara kondenatu zuten Andoni Arrizabalaga, eta gainontzeko auzipetuentzako ere espetxe zigor eskaerak egin zituzten.

Epaiketa, baina, ezin daiteke ulertu testuinguru sozio-politikoan kokatu barik. 1960ko hamarkada oso bizia eta iraultzailea izan zen Euskal Herrian. Beste hainbat txokotan modura, Ondarroan ere gazte taldeak Francoren diktaduraren aurka borrokatzen hasi ziren. Ondarroan, bereziki, mugimendu politiko oso indartsua sortu zen. Hamarkadaren bukaera aldera, gainera, isilpeko ekintza politikoak ugartzen hasi ziren. Besteren artean, ETAk Euskal Herriko hainbat tokitan hamabi lehergailu ipintzea erabaki zuen, eta kanpaina horren barruan kokatuta, Ondarroako udaltzainen ibilgailuari lehergailu bat ipini zioten auzipetuetako batzuek.

Lehergailua, zehatz esanda, 1969ko apirilaren 3an ipini zuten, 21:45ak aldera. Musika Plazako ezteandak kalte material handiak eragin zituen, baina ez kalte pertsonalik. «Aurreko egunean ere ahalegindu ginen lehergailua ipintzen, baina plazan



Andoni Bedialauneta, Jesus Mari Aramaio eta Iñaki Garcia, Itsasaurreko zubian. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

ume asko zegoenez, atzeratu egin genuen. Gure planetan ez zegoen inor zauritzea», adierazi du Bedialaunetak. Gertaera hura auzipetuak kondenatzeko nahikoa izan zen. Eta Arrizabalaga ordurako atxilotuta bazegoen ere, ekintza zuzentzea leporatu zioten. «Andoni 07:00etarako atxilotuta zegoen. Eta lehergailuak 21:45ean eztanda egin zuen».

Tentsioz betetako epaiketa

Dozena erdi militarren aurrean epaitu zituzten, eta estrategia modura tribunala salatu eta hari aurre egitea erabaki zuten abokatuekin batera. «Lehenengo epaiketa politikoa izan zen. Aurretik ere epaiketa militarren bat edo beste eginda zegoen. Eta handik zera ondorioztatu genuen: militarrei ez ziela ardurarik defentsak, eta beti euren nahia aurrera eramaten zutela eskatutako zigorrak jaitsi barik».

Hori jakinda eta eurekin ere antzeko planteamendua erabiliko zutela ikusita, epaiketa politikoa egitea erabaki zuten. «Defendatzeko aukerarik ez genuenez, tribunalari aurre egitea erabaki genuen. 12 urtetik beherrako eskaerak zituztenen kasuan epaiketa egitea erabaki genuen, baina 12 urtetik gorakoen kasuan eta Franco hainbeste ez zela biziko iritzita eta beste garai politiko batzuk etorriko zirela pentsaturik, lege errepresiboa

salatuz defentsari uko egitea erabaki genuen».

Tentsio handiko uneak bizi izan zituzten epaiketan. Banakabanaka deitu zituzten, baina Arrizabalagaren txanda heldu zenean, zutundu eta euskaraz zuzendu zitzairen militarrei. Deklaratzen hasi orduko, eta tribunaleko presidentearen oihuei jarraionik egin barik, euskaraz berbetan jarraitu zuen. *Tribunal hau ez dut onartzen, ni bakarrik herriak juzgatuko nau. Nire burua asko maite dut, baina gehiago maite dut nire herria*, esan zuen ozen Arrizabalagak. «Euskaraz ari zela entzun zutenean militarrek sableei kolpe egin zieten, eta ateratzeko keinua ere egin zuten». Hitz egiteari uzten ez zionez, gelatik aterarazi zuten Arrizabalaga, Bedialaunetaz eta Garciagaz batera.

Defentsarik barik kondenatu zituzten. Epaiaketak oihartzun handia eduki zuen. Mobilizazio ugari egon ziren Euskal Herrian, baita euskal mugetatik kanpo ere. Frantzia, Alemania edo Italiaraino zabandu zen, esaterako, elkartasun uholdea. Nazioartean sorrarazitako presioari esker, heriotza zigorra konmutatu egin zioten Arrizabalagari. 30 urtetara kondenatu zuten. Bedialaunetari eta Garciari, berriz, 25 urteko kartzela zigorra ezarri zieten. Aramaio eta Uribe, ostera, absolbitu egin zituzten.

Arrizabalaga, Bedialauneta eta Garcia espetxeratu egin zituzten, eta hainbat kartzelatan egon ziren, harik eta 1977an amnistiatu zituzten arte. Hirurek egun berean irten zuten kartzelatik.

Urteurrena gogoan

Andoni Arrizabalagaren etxeko eta lagunek epaiketaren urteurrena gogoratzeko ekitaldia antolatu dute domeka eguerdirako. Duela 50 urte gertatutakoa jendeari jakitera emateko, Alamedan erakusketa xume bezain berezia egingo dute. Musikagaz lagunduta, pare bat orduz, bost panel ikusteko aukera egongo da. «Historia gogoratzeko, orduko gertaera ezagutzera ematen duten hainbat dokumentu eta argazki ipiniko ditugu ikusgai. Andoniren argazkiak eta kartzelan egondako lagunekin ateratako argazkiak egongo dira ikusgai. Baita hark idatzitako bertso batzuk ere».

Bedialaunetak, Garciak eta Aramaio, ostera antzean, Itsasaurreko zubiari Andoni Arrizabalaga izena jartzeko eskaera egin dute. «Andoni Arrizabalagaren omenez zerbait egiteko eskatu nahiko genieke Ondarroako agintariei. Itsasaurreko zubiari Andoni Arrizabalaren izena ipintzea proposatzen dugu, haren pertsona gogoratzeko duen plaka batez. Gure ustez, Andonik hori eta gehiago merezi du».